




MAYO 2017

EUSKO BAROMETRO

Estudio periódico de la
opinión pública vasca



HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK



ONDORIO NAGUSIAK

- ✓ **PODEMOS ETA CIUDADANOS LEHIA POLITIKOAN MODU DESBERDINEAN SARTU IZANAK EUSKAL HAUTESKUNDE EGONKORTASUNA HAUTSI, PLURALISMOA AREAGOTU, ETA GOBERNAGARRITASUNA ZAILDU DU.**
- ✓ **HAUTESKUNDE PANORAMA NAHIKOA ALDAKORRA DUGU, NON MOBILIZAZIOA TXIKIA DEN, ZATIKETA HANDIAGOA, LEIALTASUNA MODU DESBERDINEAN BERRESKURATZEN ARI DEN IA HAUTESLERIA GUZTIETAN, ETA ERABAKITASUNIK EZAREN MAILA % 16 INGURUKOA DEN.**
- ✓ **HORRELA, PARTE HARTZEA % 60 BAINO ZERTXOBAIT GEHIAGO IZANGO LITZATEKE, ETA HORREK MOBILIZAZIOA APUR BAT HANDIAGOA EKARRIKO LUKE.**
- ✓ **ZATIKETA MANTENTZEAK ETA HAUTESKUNDE ALDAKORTASUNA TXIKIAGOA IZATEAK LEGEBILTZAR ZATITUAGO ETA PLURALAGO BAT FINKATUKO DUTE, BATEZ ERE, EZKERREAN.**
- ✓ **PNVk BERRIRO IRABAZIKO LITUZKE HAUTESKUNDEAK, 400.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 38 BAINO APUR BAT GEHIAGO LORTUTA; HALERE, HAREN GEHIENGO PARLAMENTARIOAK, APUR BAT INDARTU ARREN, NEKEZ AHALBIDETUKO DU KOLORE BAKARREKO GOBERNU BAT ERATZEA GUTXIENGOAN.**
- ✓ **PNV GOBERNUAN MANTENTZEA EHBren EDO PODEMOSen EDO BESTE BI INDAR PARLAMENTARIOEN (PSE-EE ETA PP) BABESAK EDO ONESPENAK BALDINTZATZEN DU; BERAZ, FORMULARIK GERTAGARRIENA DA KOALIZIO GOBERNU BAT EDO ALIANTZA PARLAMENTARIO BAT ERREPIKATZEA.**
- ✓ **EZ DA BAZTERTU BEHAR ERE PNVren ETA EHBren ARTEKO KOALIZIOA EDO ALIANTZA PARLAMENTARIOA, BAINA GAUR EGUNGO TESTUINGURUAN EZ DU EMATEN FORMULA HORI EMANGO DENIK.**
- ✓ **EZ DAGO BESTE GOBERNU AUKERARIK, NON ETA EZKERREKO HIRU INDARRAK (EHB, E-PODEMOS ETA PSE-EE) GOBERNATZEKO ADOS JARTZEN DIREN; HALAKORIK GERTATZEA, ORDEA, OSO ZAILA DA BAI POLITIKOKI BAI ARITMETIKOKI.**

- ✓ **EHBk, 220.000 BOTO BAINO APUR BAT GEHIAGO ETA BOTO BALIODUNEN % 20 INGURU LORTUTA, BIGARREN LEKUARI EUSTEN DIO, ETA GOBERNUA OSATZEKO GEHIENGOA BALDINTZATU DEZAKE, BAITA GIDATU ERE.**
- ✓ **ELKARREKIN PODEMOSek, 145.000 BOTO ETA BOTO BALIODUNEN % 14 INGURU LORTUTA, NEKEZ EUSTEN DIO HIRUGARREN LEKUARI, AZKEN HILABETEOTAN BABES APUR BAT GALDU ONDOREN; DENA DEN, GOBERNUA OSATZEKO GEHIENGOA BALDINTZATZEKO GAITASUNA DU.**
- ✓ **PSE-EEK, 140.000 BOTOTIK GORA ETA BOTO BALIODUNEN % 13 INGURU LORTUTA, HIRUGARREN LEKUA BERRESKURATU LEZAKE, GOBERNUA OSATZEKO GEHIENGOA BALDINTZATUTA ETA HORREN PARTE IZATEKO AUKERAK EDUKITA.**
- ✓ **PPk, 100.000 BOTO BAINO APUR BAT GUTXIAGO ETA BOTO BALIODUNEN % 9 INGURU LORTUTA, HAUTESLEEN BABES APUR BAT GALDU DU, ETA GOBERNUA OSATZEKO GEHIENGOA BALDINTZATZEN JARRAITZEKO AUKERA GAL DEZAKE.**
- ✓ **CIUDADANOSek, 30.000 BOTO BAINO GUTXIAGO ETA % 2 INGURU LORTUTA, LEGEBILTZARRERA SARTZEKO HESIA HAUSTEA LORTUKO LUKE, ARABAN.**
- ✓ **SEIKO LEGEBILTZAR BERRIAN, ABERTZALEEN GEHIENGO SENDO BAT EGONGO LITZATEKE, EZKERREKOA IZATEA ZAILAGOA IZANIK, ETA, BIEN BITARTEAN, INDAR AUTONOMISTEK BEREN ORDEZKARITZA MANTENDUKO LUKETE.**

Euskal Herriko Unibertsitatearen Politika eta Administrazio Zientziako sailaren EUSKOBAROMETRO Taldeak hauteskunde estimazioak egin zituen, joan den maiatzean egindako 1.200 elkarrizketetatik ateratako boto asmoa eta beste hauteskunde adierazle batzuk abiapuntutzat hartuta, eta horren ondorioak honako hauek dira:

1. **PNVk** berriro irabaziko lituzke hauteskundeak, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak orain egingo balira. Boto baliiodunen % 38,6 lortuko luke, apur bat aurreratuta, eta 29-30 eserleku inguru eskuratuko lituzke, lehen lekua lortuta hiru herrialdeetan.

2. **EHB koalizioak** bigarren postuari eutsiko lioke. Boto baliiodunen % 20,8 eskuratuta, 15 eta 17 eserlekuren artean lor ditzake. Bigarren lekua lortuko luke Gipuzkoan eta Bizkaian, eta Araban PPrekin lehiatuko litzateke postu hori lortzeko.

3. **Elkarrekin Podemosen** hauteskunde itzaropenek okerrera egiten dute. Boto baliiodunen % 13,9 eta 10 edo 11 eserleku lortuta, hirugarren lekua eskuratzeko lehian arituko litzateke PSE-EEekin hiru herrialdeetan.

4. **PSE-EEK** hirugarren lekua berrekuratu lezake eta, boto baliiodunen % 13,0 eta 9 eserleku inguru lortuta, gobernua osatzeko gehiengoan parte hartzen jarraitzeko aukera izan dezake. Gipuzkoan eta Bizkaian hirugarren lekuan gera daiteke, baina Araban bosgarrena baino ez luke lortuko.

5. **PPk** gobernuko galera jasaten jarraituko luke, eta atzera egingo luke probintzia guztietan, baina bosgarren lekuari eutsita; 7 eta 9 eserleku artean eta boto baliiodunen % 9,2 inguru lortuko luke. Araban EHBrekin bigarren lekua lehiatzeko aukera izango luke, baina gainerako guztietan azken lekuan geratuko litzateke.

6. **CIUDADANOS**, boto baliiodunen % 2,4 eskuratuta, Eusko Legebiltzarrean sartuko litzateke, Arabako eserlekuari esker, non sartzeko hesia hautsiko luke.

7. Batez besteko **parte hartze estimatua** % 60 baino apur bat gehiagokoa da, herrialdeen arteko aldea oso txikia izanik ehuneko horren inguruan, eta


nolabaiteko mobilizazioa eman daiteke, batez ere, hautesleria autonomisten artean.

8. Boto leialtasuna modu desberdinean berreskuratu da, Ciudadanosen gehiengotik (% 100) Elkarrekin Podemosen gutxiengora (% 63), tartean egonda PPren % 74, Sozialisten % 84, EHBren % 89 eta PNVren % 92.

9. Erabakitasunik eza nabarmen jaitsi da: Elkarrizketatuen % 80k baino apur bat gehiagok adierazi dute beren aukera erabakita dutela, eta % 16k inguruk ez du asmo argirik adierazi boto emateari edo abstenitzeari edo edozein aukera bozkatzeari dagokionez.

BOTO BALIODUNAREN ESTIMAZIOA

ORDEZKARITZAREN BANAKETA EUSKO LEGEBILTZARREAN



EAE

	Asmo Zuzena (1)	Estimazioa	
		B.B	Eserlekuak
PNV	% 27,2	% 38,6	29-30
EH Bildu	% 15,8	% 20,8	15-17
Elkarrekin Podemos	% 13,2*	% 13,9	10-11
PSE-EE	% 7,4	% 13,0	9
PP	% 2,7	% 9,2	7-9
Ciudadanos	% 1,0	% 2,4	1

(1) Errolda edo laginaren osoarekiko ehunekoa.

(*) Aukera honen boto oroitzapenean alborapen nabarmena dago, Bizkaian, bereziki.

Parte hartze estimatua **hautesleriaren % 60** baino apur bat goragokoa izango litzateke.

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Asm. Zuz.	Estim.	Ese.	Asm. Zuz.	Estim.	Ese.	Asm. Zuz.	Estim.	Ese.
PNV	% 24,8	30,2	8	% 30,4	43,8	12(+1)	% 22,9	33,7	9
EHB	% 13,3	18,3	5(-1)	% 12,5	16,7	4	% 22,4	28,5	8 (-1)
Elk. PODEMOS	% 10,9	15,0	4	% 14,8	14,5	4(-1)	% 11,1	12,0	3
PSE-EE	% 6,7	11,7	3	% 6,8	13,3	3	% 8,8	13,0	3
PP	% 3,6	17,5	4(+1)	% 3,5	8,4	2	% 1,3	6,8	2 (-1)
CIUDADANOS	% 1,8	3,2	1	% 1,2	1,6	0	% 0,5	1,3	0

“Boto asmoa” eta “boto asmoa + sinpatia” adierazleen datuak iritzi datu zuzenak direnez eta beren horretan hauteskunde balizko emaitzen proiektiorik ematen ez dutenez, inkestek emandako iritzi datu zuzenei estimazio eredu bat aplikatzearen emaitzak jasotzen dituzte estimazioek. Jakina, datu berberei beste modelo batzuk aplikatuz gero, estimazioen emaitzak desberdinak izango lirateke.

FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren EUSKOBAROMETROA taldea **Francisco J. Llera Ramo** irakasleak zuzentzen du; **José M. Mata** eta **Carmelo Moreno** irakasleek osatzen dute; eta, **Rafael Leonisio**, **Jonatan García** eta **Ion Baratasen** laguntza teknikoa jaso du.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, **CPS**ren landa sareak galdetegi egituratu batez ethez etxe egindakoak, 2017ko maiatzaren 2tik ekainaren 2ra.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginaren tamaina: Etxeetan egindako 1.200 inkesta.

Laginaren diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT**en metodologiaren arabera, 34 udalerritako (7 Araban, 12 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan) 60 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu diren, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginaren errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako + % 2,82 da. Azpilagin probintzial bakoitzerako eta baldintza berberekin, erroreak +% 4,89 dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko datuetarako, hurrenez hurren.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, EUSTATEk 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.



Fundación

IBERDROLA



fundación endesa



Universidad
del País Vasco

Universidad
del País Vasco



DEPARTAMENTO DE
CIENCIA POLÍTICA
Y DE LA ADMINISTRACIÓN
EUSKAL ITA
ADMINISTRAZIO ZINZIN BAKA